

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2016-2017 Ikasturtea

**3-4 URTEKO GELAN EUSKAL MITOLOGIAKO PERTSONAIEN
BALOREAK HELARAZTEKO ESKU-HARTZE PROPOSAMENA**

Egilea: Ainhoa Arribalzaga Dañobeitia

Zuzendaria: Garbiñe Bereziartua

Leioan, 2017ko maiatzaren 31an

AURKIBIDEA

1. MARKO TEORIKOA	3
1.1. MITOLOGIA: DEFINIZIOA ETA BILAKAERA	3
1.1.1. MITOA, MITOLOGIA ETA EUSKAL MITOLOGIA.....	3
1.1.2. EUSKAL MITOLOGIAREN BILAKAERA.....	4
1.2. ZER DA EUSKAL NORTASUNA EDO EUSKAL IDENTITATEA?	5
1.3. EUSKAL MITOLOGIAKO PERTSONAIAK	6
1.4. EUSKAL MITOLOGIAKO PERTSONAIEK TRANSMITITURIKO BALOREAK	9
1.5. IKERKETA GALDEREN PLANTEAMENDUA	14
2. HELBURUAK	15
3. METODOLOGIA	15
3.1. HASIERAKO EDO DIAGNOSTIKO FASEA	15
3.1.1. TESTUINGURUA ETA LAGINA.....	15
3.1.2. EGOERA.....	16
3.2. DISEINU EDO PLANIFIKAZIO FASEA	16
3.2.1. ESKU HARTZEA: IDEIA OROKORRA.....	17
3.2.2. SEKUENTZIALIZAZIOA.....	17
3.2.3. METODOLOGIAREN EBALUAZIO TRESNAK.....	20
3.3. ESKU-HARTZE FASEA	20
3.4. EBALUAZIO EDO BALORAZIO FASEA	21
4. ONDORIOAK ETA AURRERA BEGIRAKOAK	22
4.1. ONDORIOAK	22
4.2. PROZESUAN ZEHAR IZANDAKO ZAILTASUNAK	23
4.3. AURRERA BEGIRAKOAK	24
5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	25

ERANSKINAK

- 1. Eranskina:** Irakasleei egindako elkarrizketen galderak
- 2. Eranskina:** Hasierako ebaluazioa behaketa txantiloia landa-oharrak
- 3. Eranskina:** Jardueren xehetasunak eta horietan erabilitako material hezigarriak
- 4. Eranskina:** Amaierako ebaluazioa txantiloia landa-oharrak

TAULAK

- 1. Taula:** Euskal Mitologiako pertsonaiak eta horien baloreak
- 2. Taula:** Asteleheneko esku-hartzea
- 3. Taula:** Astearteko esku-hartzea
- 4. Taula:** Asteazkeneko esku-hartzea
- 5. Taula:** Osteguneko esku-hartzea
- 6. Taula:** Ostiraleko esku-hartzea
- 7. Taula:** Esku-hartzearen prozesua azaltzen duen diagrama

3-4 URTEKO GELAN EUSKAL MITOLOGIAKO PERTSONAIEN BALOREAK HELARAZTEKO ESKU-HARTZE PROPOSAMENA

Ainhoa Arribalzaga Dañobeitia

UPV/EHU

LABURPENA: Gradu amaierako lan honetan Euskal Mitologiako pertsonaiek transmititzen dituzten baloreak Haur Hezkuntzako ikasleekin lantzeko esku hartze bat gauzatu da. Lehenengo eta behin, teoria mailan mitoak, mitologia eta euskal mitologia zer diren definitu eta gero, hortik, mitologiako pertsonaien ezaugarriak eta transmititzen edo sinbolizatzen dituzten baloreen berri edukiko da. Gero, Muxikako Urretxindorra eskolako 3-4 urteko gelako umeeekin aurrera eramateko esku hartze bat diseinatu da. Astebetean zehar, ekintza eta jarduera desberdinen bidez, euskal mitologiako pertsonaiak ezagutu eta horien baloreak umeeekin landuko dira. Amaitzeko, praktikan lorturiko ondorioei dagozkien emaitzak zehaztuko dira.

Euskal Mitologia, Euskal Nortasuna, Euskal Baloreak, Esku-hartzea, Haur Hezkuntza

RESUMEN: En el presente trabajo Fin de Grado, se ha realizado una intervención con un alumnado de Educación Infantil con el fin de trabajar los valores que transmiten los personajes mitológicos vascos. En primer lugar, después de definir qué son los mitos, qué es la mitología y qué es la mitología vasca, se tendrán en cuenta las características y los valores que transmiten o simbolizan los personajes mitológicos. Después, se ha diseñado una secuencia didáctica para llevar a cabo con niñas y niños de 3 a 4 años de edad de la escuela Urretxindorra de Muxika. A lo largo de una semana, mediante diversas actividades, se estudiarán los personajes mitológicos y valores relacionados a los mismos. Para finalizar, se darán a conocer los resultados obtenidos mediante dicha práctica.

Mitología Vasca, Identidad Vasca, Valores Vascos, Intervención, Educación Infantil

ABSTRACT: In the present end of school year's, an intervention has been carried out with a pupil of Infant school in order to work the values that transmit the Basque mythological personages. First of all, after defining what the myths are, what is mythology and what is Basque mythology, we will take into account the characteristics and values that mythological characters transmit or symbolize. Afterwards, a didactic sequence has been designed to be carried out with children, from 3 to 4 years of age, of the school Urretxindorra de Muxika. Throughout a week, with various activities, we will study the characters and values related to them. Finally, the results obtained by this practice will be commented.

Basque Mythology, Basque Identity, Basque Values, Intervention, Infant School

SARRERA

Euskal kulturaren oinarrian Euskal Mitologia dago. Hain zuzen ere, gure euskal arbasoak, horien inguruan bizi izan ziren, mitologia eta euskalduna beti egon baitira bata bestearekin harremanetan; hau da, mitologia betidanik erroturik egon da Euskal Herrian. Eskolan mitologiaren gaineko ezagutza nola bultzatu den aztertu daiteke lan honetan, baita sustapen hori aurrera eramateko buruturiko ekintzen xehetasunak ere.

Busturialdea eskualdeko Muxika herriko Urretxindorra eskolako Euskal Mitologiaren inguruko egoera izan da lan hau burutzeko abiapuntu nagusia. Informazio bilketa egin ostean, eskolan hutsune hau hauteman da: umeez ez dute Euskal Mitologiaren inguruko ezagutzarik. Gradu Amaierako lan honek, beraz, Muxikako Urretxindorra eskolako errealitateari erantzun nahi dio, hori dela eta, Euskal Mitologia lantzeko esku-hartze proposamena izango du ardatz. Horretarako, astebetean ekintza eta jarduerak desberdinak jorratuko dira, umeez mitologiako pertsonaien ezaugarriak eta beraiek transmititutako baloreak barneratzeko.

Lan txostenak honako egitura izango du: Lehenengo eta behin, marko teorikoan mitoa, mitologia eta Euskal Mitologia zer diren ikertu eta gizartean horiek nolako eragina duten ikusi da; era berean, Euskal Mitologiakoa pertsonaiek sinbolizatzen dituzten baloreak aztertuz. Ondoren, metodologiaren atala lau fase desberdinetan banatu da: hasierako fasea, diseinu fasea, esku-hartze fasea eta ebaluazio fasea. Hasierako fasean, Muxikako eskolako egoera aurkeztuko da eta hori ikusitakoaren arabera, sekuentzializazio bat sortu da, bertan, astebetean zehar egingo dena azalduz. Horren ostean, esku-hartze fasean, esku-hartzea egiteko jarraituriko pausuak aipatu eta jarraian, esku-hartzearen balorazio fasea egin da, bertan lortutako emaitzen balorazioa eginez. Amaitzeko, aurretik esandako guztiaren ondorioak azter daitezke, esku hartzearen proposamena eta horren aplikagarritasunaren gainean gogoeta eginez.

1. MARKO TEORIKOA

1.1. MITOLOGIA: DEFINIZIOA ETA BILAKAERA

1.1.1. MITOA, MITOLOGIA ETA EUSKAL MITOLOGIA

Autore batzuek, (Satrustegi, 1992; Arriaga, 2000; Garagalza, 2006), mitoek gizakiek bizitakoa azaltzen dutela diote, beti ere, kontakizun sinbolikoak erabiliz, baina Garagalza-k (2006) gainera zera dio, inoiz gertatu ez diren gertaera batzuen inguruan hitz egiten dutela mitoek. Azken horiei, Anuntxi-k (2000) ipuina deritze, gertaera bat mito izateko sinetsia izan behar baita. Bai ikuspuntu bat edo beste bat izan, autore guztiak gauza batean ados daude: mitoak gizakien kontzientzian txertaturik daudela (Satrustegi, 1992; Arriaga, 2000; Garagalza, 2006).

Azken finean, inork ez daki fabula, kondaira edo mito horiek nondik etorriak diren; hots, ez dira egia garbiak. Baina, argi dagoena da, mitoek edo sinesmenek zentzua dutela, gizakiaren bizitzan eta bere jakindurian baitaude (Arriaga, 2000; Ortiz-Oses, 2006).

Aurreko mito guztiek mitoen bilduma bat sortzen dute, mitologia izenekoa. Horrez gain, mitologia mito horiek aztertzen dituen diziplina da (Arana, 2008). Horrekin batera, mitologia herri baten pentsamenduaren inguruan (jendearen izaera, ikuspegia edo sinesmena) esanahi edo azalpen ez zientifikoa ematen saiatzen da, gizakiek izatean edo ezagutzen dituzten zalantzak argituz; hau da, momentuko errealitate zuzenari erantzunez. Beti ere, modu sinboliko baten bidez (Hartsuaga, 2004; Garagalza, 2006).

Era sinboliko horrek erreferentzia zuzenak erabili beharrean, iradokizunak edo aipamenak kontutan izaten ditu; hots, zeharkako modu batean errealitatea interpretatzen du. Horretarako, alegiazko kontakizunetan, egiazko kontakizunetan edo heroien kontakizunetan oinarritzen da (Arana, 2000; Garagalza, 2006).

Ortiz-Oses-k (2006) eta Zulaika-k (1996) dioten bezala, mitologia sinesmen edo bizipenen sistema bat da (munduaren ikuskera bat, antzinakoa edo modernoa, esplizitua zein inplizitua izan daitekeena) eta hain zuzen ere, mitoak sinesmen horiek dira. Baina mitologia ez da iraganean bakarrik existitu izan, gaur egun ere, beste era batera bada ere, gure artean dirau.

Behin mitoak zer diren eta mitologia zer den definituta, adituek Euskal Mitologiari buruz diotena aztertzea joko da.

Arana-k (2008) dio, Euskal Mitologia, kondaira nahasien multzo bat besterik ez dela, Euskal Mitologiako pertsonaien eta kondairen artean ez dagoelako loturarik, izan ere, bakoitzak gauza bat kontatzen baitu. Baina, Hartsuaga-k, (2004) eta Garagalza-k, (2006) ordea, herriak urteetan zehar gorde dituen kontakizun sorta dela uste dute. Arana-k, (2000) euskal mitologiak are gehiago uste du, iraganeko sinesteez hitz egin eta euskal mitologiak gaur egun ere badirau gure artean.

Ortiz Oses (2006:10) aurreko guztiaz haratago doa: “Euskal Mitologiaren leman antzinako kontzepzio magikoa dago eta, kontzepzio horren arabera, izenak du egiazkoaren gako sekretua”; hau da, Euskal Mitologiaren barruan esan ohi da izena daukan guztia mitologia badela.

1.1.2. EUSKAL MITOLOGIAREN BILAKAERA

Atal honetan, Euskal Mitologiak haitzuloetatik gaur egunera arte izandako bilakaera eta urte horietan gertaturiko aldaketen nondik norakoak aztertuko dira.

Satrustegi-ren hitzetan (1996:166) “lehen gizonagandik hasita ahultasunaren eta jakin-minaren eraginez, pentsa bidean emandako aurrerapenen bilduma, eta garaian garaiko sinesteen aurkitegi aberatsa haitzuloetan aurkitzen da”. Horrekin lotuta, Arriaga-k (2000) dio haitzuloetako sineskeriak, esaterako, bertako garaiko gizakiek ahoz aho mendeetan zehar transmititu dituztela, baserri arora heldu arte, betiere, euskara hutsean jakina.

Bilakaera horretan zehar, ahozko transmisioa dela medio, kontakizunak aldatzen eta birmoldatzen joan dira, hitzunek beraien ekarpenak sartu izan baitituzte, era horretan entzuleentzako interesgarriagoak eginez. Betiere, alegiazko eta egiazko datuak, kontakizunen fantasia eta beraiek interpretaturikoa adieraziz (Bergara, 2001; Arriaga 2000).

Euskal Mitologia, XVI eta XVII. mendeetan gailendu zen (Barandiaran, 1972), haitzuloetatik hasitako mitologia baserriarregana heldu zenean, alegia. Euskal Mitologia baserri mundura heltzen den momentuan, haitzuloetan kontatzen ziren ipuin eta kondaira guztiak sutondoaren inguruan kontatzen izan dira; hau da, gizakien sinesmenak, beraien beldurrak, beraien misterioak, euskal mitologiako izakien bitartez kontaturik (Bergara, 2001).

Baserri munduko kondaira guzti horiek une horretatik eta XX. menderaino zaharrenek haurrei transmititzen zizkieten (belaunaldiz-belaunaldi) ahozko transmisioa erabiliz (Satrustegi, 1996). XX. mendean, Jose Miguel Barandiaranek ordura arte pil-pilean zeuden istorio guzti horiek gal edo ahaztu ez zitezen, batu egin zituen gaur egun dugun herri jakintza sortuz (Ortiz-Oses, 2006; Garagalza, 2006).

Hori dela eta, gaur egun mito zaharren iraupena oraindik ere gure gizartean presente daukagu; lehengo irudi, gurtza toki, bizitokia etab., toki berean aurkitzen direlarik (Barandiaran, 1972; Satrustegi, 1992; Satrustegi, 1999). Horregatik, esaten da, gizakia aldatu arren, lehengo kezka, grina eta barneko sentimenduak gure arbasoen antzekoak ditugula eta garai hartako sinbolo edo adierazpen horiek gaur egun ere adierazpide berbera dutela. (Barandiaran, 1972; Dumezil, 1990; Satrustegi, 1992; Arana, 2000; Campbelle, 2013).

Azken finean, aditu asko bat datoz (Arriaga, 2000; Lanceros, 2001; Ortiz-Oses, 2006; Siruela, 2010), aipaturiko Barandiaranek eta beste autore askok Euskal Mitologian luze aztertu arren, oraindik, aztertzeke asko dago oraindik, mitologia eta mitoen mundua agortezina baita.

1.2. ZER DA EUSKAL NORTASUNA EDO EUSKAL IDENTITATEA?

Aurretik aipatutako Euskal Mitologiak euskaldunen mundu ikuskera erakusten du (Zulaika, 1996). Betiere, euskaldunen identitate eta euskal gizartearen norabidea gidatzeko helburuarekin; herriak zein jarrera eta eredu izan nahi zuen azaldu, euskaldunen izaera propioz beterikoa, alegia. (Hartsuaga, 2004; Haranburu, 2010; Hartsuaga, 2013.). Euskal Mitologia, egoera batzuk direla medio (baserri girotik aldentzea, hirietara bizitzen joatea) aldatzen, eraldatzen eta eguneratzen joan da, (aldaketa sozial eta kultural desberdinak jasanez) gaur egun dugun euskaldunen identitatea sortzeko (Lanceros, 2001; Bermejo, 2011).

Neumann-ek, (2009) azpimarratzen du, nortasun horren baitan, balore desberdinak txertaturik daudela, oinarrizko baloreak deritzenak. Oinarrizko balore horiek guztiak Marik batzen ditu eta euskaldun izatearen osotasunaren irudikapen bihurtzen dira.

Hartsuaga-k (2013) aipatu bezala, euskaldunaren nortasun hori eraldatzen doa, beraz, Marik ezin die egoera berriek edo ikuspuntu berriek dakartzaten balore berriei berak bakarrik erantzun, berarenak oinarrizko baloreak baitira. Hori dela eta, mitologiako

pertsonai berriak sortu behar izan dira, momentu bakoitzeko euskaldunen beharrian eta izaera berriari erantzun ahal izateko (Hornilla, 1991; Arriaga, 2000; Chillida, 2005).

1.3. EUSKAL MITOLOGIAKO PERTSONAIK

Jakina denez, Euskal Mitologian hainbat eta hainbat pertsonai edo numen ageri dira, baina ikerketa honetan, garrantzi gehien izan dutenak aztertuko ditugu: Mari, Sugaar, Lamiak/Maideak, Mikelats eta Atarrabi, Galtzagorriak, Akerbeltz, Tartalo eta Basajaun. Pertsonai horien baloreetan zentratu baino lehen, pertsonai bakoitza aditu desberdinek nola definitzen duten ezagutu dugu.

MARI

Barandiaran-ek, (1972); Caro Baroja-k, (1985) eta Azkue-k, (1989) diote, izaki mitologiko honek hainbat eta hainbat deitura dituela. Horietatik ezagunenak hurrengo hauek direlarik: Anbotoko dama, Muruko damea, Txindokiko Mari-e edota Anbotoko Sorgiña. Mari, emakumea izateaz gain, Euskal Mitologiako jeinu garrantzitsua da, beste jeinu guztien nagusia da. Hori gutxi balitz, naturaren indarra irudikatzen du (ekaitzarena, kazkabarrarena ...) eta naturako indarrak orekatzen eta mantentzen ditu. Horregatik, naturaren erreginatza daukate.

Mari gailur batetik bestera joaten zen, herri bakoitzean inguruko mendiren baten izena hartzen zuelarik, hala nola, Durangon, Anbotoko dama zen, Anbotoko kobazuloan bizi baitzen (Arana, 2008). Horrez gain, esan beharra dago, mendi bakoitzean hiru urte igaro ondoren (Aketegi-Txindoki-Anboto), hurrengo mendira joaten zela, betiere, errotazio berdina eginez. Batetik bestera igarotzerakoan, hau da, mendietara joateko zerua zeharkatzean, emakume eder legez, bele moduan edo lau zaldidun gurdi batean eserita zihoan emakume itxuran ikusten zuten (Satrustegi, 1980; Caro Baroja, 1985; Azkue, 1989).

Mariri zerbait galdetu nahi izatekotan hurrengo baldintza hauek bete behar dira: Lehenengoa, alokutiboan egin behar da hitz; hau da, hikan mintzatzea aldarrikatzen baitu. Bigarrena, kobazuloan aurrerantz sartu behar da, baina hemendik atzeraka baino ezin daiteke atera, hots, beti berari aurpegira begiratu; hots, norbaitekin hitz egiten zaudenean beti aurrez hitz egin behar diozula. Eta hirugarrena, bere koban zauden bitartean ezin zara jesarri, errespetu falta iruditzen baitzaio (Barandiaran, 1972; Caro Baroja, 1985; Ortiz-Oses, 2006).

SUGAAR

Sugaar, Sugoi eta Maju izenez ere ezagutzen da. Mariren senarra Maju dela diote Oñatin eta Azkoitian; Goierri berriz, Sugaar; eta Bizkaian Kulebro deitzen diote (Barandiaran 1972; Arriaga, 2000; Alzate 2001).

Sugaar suge ar izugarria da, lur azpian bizi dena, eta leizeetatik eta kobazuloetatik irteten da, burua eta buztana sutan dituela. Horrez gain, deabru gaiztotzat hartzen dute (Barandiaran, 1972). Jeinu horrek naturaren indarrekin erlazio estua du, Marik bezala (Satrustegi, 1980).

AKERBELTZ

Izaki honek aker beltz baten itxura dauka. Sorginen eta aztien buruzagia da, horregatik sorginen eta aztien batzarrak zuzentzen ditu, akelarreak, alegia. Batzar edo bilkura horiek astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan izaten ziren eta egun horietan akerra gurtzen zuten, aldi berean, beraren esana betez. Horrekin batera, bertan bildutakoek dirua, arrautzak eta ogia akerra eskaintzen zizkieten (Barandiaran, 1972; Arriaga 2000; Ortiz-Oses, 2006).

Akelarre horiek normalean, Zugarramurdin egiten ziren, Akelarre leizearen aurrean dagoen akelarre zelaian, hain zuzen ere (Barandiaran, 1972; Ortiz-Oses, 2006).

ATARRABI ETA MIKELATS

Atarrabi eta Mikelats jeinuak Mari eta Sugaarren semeak dira; bata ona eta bestea gaiztoa. Mariren semeak direnez, bata Mariren alderdi positiboa da eta bestea alderdi negatiboa. Deabruak leku ezkutu batean duen koba batean ikasi zuten biek, eta adituek diote (Barandiaran, 1972; Satrustegi, 1980; Arriaga, 2000; Ortiz-Oses, 2006; Arana, 2008), balitekeela Zugarramurdikoan izatea. Koba horretan zeudela, mutiko biei baldintza bat jarri zien: prestakuntza bukatzean, anaia bietako bat kobazuloan bertan geratuko zela deabruaren zerbitzura. Orduan, deabruak Mikelats aukeratu arren, Atarrabi bihotz onekoa zenez, bertan gelditu zen anaia aske izan zedin (Barandiaran, 1972; Bergara, 2001).

MAIDE/LAMINAK

Laminetan bi mota zeuden, Euskal Herriko mendebaldean, neska ederrak laminak deritzenak eta ekialdean berriz, gizon txipiñoak Maide izenekoak (Arana, 2008).

Gizonezkoak, kobazuloetan bizi ziren eta gizakien itxura zuten, baina desberdintasun batekin, hankak eduki beharrean, hegazti erpea zuten. Emakumezkoak aldiz, lamin,

mamarru, intxitu, lamiñatxu edo amilamia legez ezagutzen dira (Barandiaran, 1972). Lamin horiek, leize zuloetan, iturrietan, osinetan eta ibaietan bizi ziren. Nahiz eta askok uste laminen itxura beti ederra zela, bazeuden, begi bakarrekoak edo txikiak zirenak ere. Gehienetan, hanka erpedunak, ahateak bezalakoak, edo gorputzaren zatiren bat itxuragabekoa ere bazuten (Satrustegi, 1999; Arriaga, 2000; Ortiz-Oses, 2006).

Bai maideen eta bai laminen erreinua gaua zen. Egunsentia heltzen zen momentuan ez ziren ezertarako gauza. Beraz, oilarra zen beraien arerio nagusia, oilarrarekin batera eguna hasten baita (Arriaga, 2000).

BASAJAUN

Basajauna, gorputz osoa ilez estalirik eta atzapar luzedun gizaki forma duen basoko gizon legez ezagutzen da. Esan bezala, basoko gizona denez, basoaren barren barrenean bizi da eta noizbehinka kobazulo ilunetan eta uharretan ageri ohi da (Satrustegi, 1980). Horrekin batera, Basajaunak Tartaloren ezaugarriak hartzen dituenean, beldurgarri ere bihurtzen da (Arriaga, 2000). Toki batzuetan esaten dute bera izan zela lehenengo nekazari, errementari edo errotaria (Barandiaran, 1972; Ortiz-Oses, 2006).

Basajaunak Marirekin badu komunean gauza bat, bakar bezala eta singularrean aipatzen da ia beti, eta ez pluralean lamiak bezala (Arana, 2008).

TARTALO

Izaki mitologiko honek Tartaloz gain hainbat izen ditu: Torto, Anxo eta Alarabi besteak beste. Begibakarreko leize gizona eta gizajalea izateaz batera, sen oldarkorra du. Horrekin batera, beraren bizitokia Zegamako Sahadar mendian dauka, "Tartaletxea" izenekoa (Barandiaran, 1972; Satrustegi, 1980; Arriaga, 2000).

GALTZAGORRIAK

Galtzagorriak, izenak dioen moduen, galtza gorriak eramaten dituzten izaki txikiak dira. Izaki horiek, orratz ontzi baten barnean bizi dira eta noizbait norbaitek orratz ontzi bat aurkitzen badu eta zabaldu, bertan barruan bizi diren galtzagorriak irten eta zu beraien jabe bihurtzen zara (Barandiaran, 1972; Bergara, 2001). Momentu horretan, galtzagorriek galdetzen dizute lanik egiteko daukazun, eta berehala, egin behar horri ekiten diote. Bukatzean, lan gehiago eskatzen dizute, eta beraiantzako lanik ez baldin baduzu egindako lana apurtzen hasten dira, bihurri bihurturik (Bergara, 2001).

1.4. EUSKAL MITOLOGIAKO PERTSONAIEK TRANSMITITURIKO BALOREAK

Euskal Mitologiako pertsonaien bizitokiak, izaera eta aspektu garrantzitsuenak deskribatuta ditugula, aditu desberdinek pertsonai bakoitzak transmitituriko baloreen inguruan dioena aztertuko da. Horretarako, aditu bakoitzaren ustez pertsonai bakoitzak transmititurikoa taula batean adieraziko da.

1. TAULA

Euskal Mitologiako pertsonaiak eta horien baloreak

PERTSONAIAK	BARANDIARAN(1972)	SATRUSTEGI(1980)	ARANA(2008)	ARRIAGA(2000)	BERGARA (2001)
MARI	<p>-Berarekin ondo portatzen direnak edo ondo portatu nahi dutenak saritzen ditu.</p> <p>-Pertsonak hitza ez betetzea gorrotatzen du; hau da zintzotasuna defendatzen du.</p> <p>-Pertsonen egiazkotasuna defendatzen du.</p> <p>-Elkarri ez laguntzea gaitzesten du eta besteenganako errespetu falta ez du onartzen.</p> <p>-Errespeturik gabe bere etxean sartzen direnak edo bertatik objektu pertsonalak ostu egiten dituztenak zigortzen ditu.</p> <p>-Gezurra zigortzen du.</p> <p>-Lapurreta eta jarrera harroak zigortzen ditu.</p>	<p>-Norberarena dena defendatzen du.</p> <p>-Bere baimenik gabe, bere bizitokira sartzea gorroto du.</p> <p>-Ez du bere objektu pertsonalak modu desegoki batean eskuratzea onartzen.</p> <p>-Besteei laguntzen die.</p>	<p>-Besteei laguntza eskaintzen garrantzia defendatzen du.</p> <p>-Norberarena dena defendatzen du.</p>	<p>-Gezurra gorrotatu eta lapurretak zigortzen zituen.</p> <p>-Txarto portatzen zirenei lege haustearen zigorra ezartzen zien: soroa harriz bete, animaliak kendu, gorputzeko non edo nongo mina sortzea.</p>	<p>-Mariren kobazulora sartu ahal izateko bihotzean ontasun handia izan behar da.</p> <p>-Justizia defendatzen du.</p> <p>-Natura errespetatzen du.</p> <p>-Etorkizuna gure esku dagoela dio.</p>
SUGAAR	<p>-Gurasoaren esanak ez betetzea ez du batere gogoko.</p>		<p>-Aurrera egiteko kemena aldarrikatzen du.</p> <p>-Gizakiak inguruko gaitzetatik defendatzearen garrantzia aldarrikatzen du.</p>	<p>-Animaliak zaindu egin behar ditugula eta ez digula jo behar.</p> <p>-On egileak saritu eta txarrak zigortzen ditu.</p>	<p>-Animaliak zaindu behar ditugula.</p> <p>-Ongileak saritu eta txarrak zigortu behar direla.</p>

PERTSONAIK	BARANDIARAN(1972)	SATRUSTEGI(1980)	ARANA(2008)	ARRIAGA(2000)	BERGARA (2001)
AKERBELTZ	-Baserritarren etxe-abereak zaintzea baloratzen du. -Eskualdeka bizitzea sustatzen du(batera bizitzea). -Lidergotza demokratikoa bultzatzen du (besteen iritziak kontutan hartzen baititu).			-Etxabereak zaintzeari garrantzia ematen dio. -Pertsona bakoitzaren inizatibaren aldarrikapena egiten du.	-Etxabereak zaintzea garrantzitsutzat jotzen du.
MIKELATS ETA ATARRABI	-Marik bi balore transmititzen ditu: bihotz onekoa (Atarrabiren bitartez) eta bihotz txarrekoa/gaitzezpena/amorrua (Mikelatsen bidez).	-Pertsonaren bi alderdiak aldakarrikatzen dituzte: Atarrabi, otzana, esanekoa eta Mikelats, bihurria eta menderakaitza.	-Atarrabik pertsona onaren izaera bultzatzen du eta Mikelats gaiztoa.	-Mariren eskuak bezala ikusten dira: Atarrabi gizakiari on egiteko esku zabala eta Mikelats gaiztoa(mendekura eta zekentasunera) bihotz estua duena.	-Atarrabi zintzoen ahaidea eta Mikelats gaiztoena. -Atarrabik gizakiei lagundu eta Mikelatsek kontra egiten die.
LAMINAK	-Baserritarrei babesa eskaintzea. -Baserritarren lanetan lagundu (jatekoaren truke gauetan lagundu).		-Gizakien eta beraien artean elkar laguntza eta adiskidetasuna sustatzen da.	-Gizakiekin elkarlanean dihardute. -Ongizaleei esker onarekin eskertzen die.	-Gizakiekin elkar laguntza dute.

PERTSONAIK	BARANDIARAN(1972)	SATRUSTEGI(1980)	ARANA(2008)	ARRIAGA(2000)	BERGARA (2001)
BASAJAUN	<ul style="list-style-type: none"> -Animaliak zaindu behar direla. -Ekaitza datorrenean, orro egin artzainak ohartarazteko, horrela, babesa eskainiz artzainei. -Segurtasuna eskaintzen die artzainei. 	<ul style="list-style-type: none"> -Artzainen eta basajaunaren arteko adiskidetasuna aldarrikatzen du. -Artaldeari babesa eskainiz batera, artzainak seguru sentiarazten dira. -bere presentziarekin errespetua transmititu. -adiskidetasuna ez dela zerbaiten truke ematen. -naturaren babesa. 	<ul style="list-style-type: none"> -Harremanak dituela gizakiekin. -Pertsonen moduan,batzuetan adiskide gisa dituzte gizakiak beste batzuetan aldiz etsai legez. -Haien inozentzia dela eta, esandako oro sinistu, eta sarri garaituak eta engainatuak izaten dira. 	<ul style="list-style-type: none"> -Artzainei eta artaldeari babesa eskaintzen die. 	<ul style="list-style-type: none"> -Ingurukoei laguntzea ona dela defendatu. -Artaldea etsaiengandik babestearen garrantzia defendatu. -Artzainak bere artaldea basajaunak babestua izatearren, esker ona eskaini janariaren truk.
TARTALO	<ul style="list-style-type: none"> -Gizakiengandik engainatua sentitzearen mina. 	<ul style="list-style-type: none"> -Elkarrekintzan edozer gaingitu daiteke. -Munduaren ikuspuntu laburra duela(mundua ikuspuntu batetik ikusi) eta beste ikuspegi batzuei aukera ez eman. Berea besterik ez duela ikusten. 		<ul style="list-style-type: none"> -Hainbat ziri direla medio, gutxietsita sentitzen da. 	
GALTZAGORRIK	<ul style="list-style-type: none"> -Elkarri laguntzea ona dela. -Edonorekin erlazioatzeko gai dira. -Normalean oso adiskidetsuak /maitekorrak izaten dira gizakiekin.. 				<ul style="list-style-type: none"> -Eguneroko bizitzan gizakiei laguntzen die. -Galtzagorriek duten bihurritasun hori onartzea.

Taulan, Euskal mitologiako zortzi pertsonaiek (Mari, Sugaar, Akerbeltz, Mikelats eta Atarrabi, Laminak, Basajaun, Tartalo eta Galtxagorriak), bost autoreei transmitituriko baloreak zeintzuk diren adierazirik, orain, autore horien ikuspuntua pertsonaia bakoitzak transmititzen duen balorearekin konparatuta, berdina den edo ez aztertuko da.

Mariri dagokionez, Barandiaran (1972) eta Arriaga (2000) ados daude, Marik gezurrak eta harrokeria gorrotatu eta zigortzen dituela; hau da, metafora legez diote, Mari “gizakien gezurretatik edo gizakien gehiegikeri horretatik elikatzen” dela. Horrekin batera diote, lapurretak eta lege hausteak zigortu egiten dituela, esaterako, baserritarrei animaliak kenduz eta abar.

Bestalde, lau aditu hauek, Barandiaran (1972), Satrustegi (1980), Arana (2008) eta Bergara (2001) bat datoz Marik bere interesak defenditu egiten dituela, eta edonor edozelan ezin dela Mariren etxera sartu, errespetuz jokatzeko zutenak eta bihotz ona (egiazkotasunaren aldekoak) zutenak besterik ezin zirela sartu. Esandako guzti horri, Barandiaran-ek (1972) gehikuntza bat egiten dio, Marik berarekin ondo portatzen direnak saritu egiten dituela.

Aditu desberdinak, Arriaga (2000) eta Bergara (2001) esaterako, ados daude Sugaarrek transmititzen digun balorerik eta garrantzitsuena zera dela, animaliak zaindu egin behar ditugula eta ez ditugula inondik eta inora ere jo behar. Horrez gain, aurreko autore biek (Arriagak eta Bergarak) zera uste dute, sugarren beste baloreetako bat on egileak saritzea dela eta gaiztoak zigortu, Marik egiten zuen bezala alegia. Arana-k (2008) ordea uste du, inguruko eguneroko gaitzetatik gizakiak defendatzea dela sugarren balorerik eta garrantzitsuena.

Bestalde, Arriaga-k (2000) eta Bergara-k (2001) diote, Akerbeltzek transmititzen duen balorea etxabereak zaintzea dela; hau da, baserrietan eta gure pisuetan ditugun animalia guzti horiek zaintzea. Akerbeltz-ek denak zaintzen dituenek, Barandiaran-ek (1972) eta Arriaga-k (2000) buruzagi edo lidergo baten papera ikusten diote, beti alderdi positibotik begiraturaz. Horrez gain, nahiz eta norbait komunitate bateko buruzagi legez egon eskualdeka bizitzeko baloreak transmititzen dituela, guztiok elkarri laguntzen. Azkenik, Barandiaran-ek (1972) aipatzen du, etxabereak zaintzea Akerbeltzentzat garrantzitsua dela, berarentzako, inguruko lagun hurkoak zaintzea bezala baita.

Mikelatsen eta Atarrabiren baloreak zeintzuk diren bost aditu hauek (Barandiaran, (1972); Satrustegi, (1980); Arana, (2008); Arriaga, (2000) eta Bergara, (2001))-ek gutxi

gora behera gauza berdina uste dute, Mariren seme biek, amaren baloreak transmititzen dituztela; alde batetik, Atarrabi izaera onekoa, gizakien laguna, mesedeak egiten dituen, otzana, esku zabala dela eta bestetik, Mikelats gizakien etsaia, bihurria edo gaiztoa, mendekura eta zekentasunera bideratua. Oro har, hor argi eta garbi ikusten delarik pertsona bakoitzak barnean gauza onak eta txarrak ditugula eta momentuaren arabera modu batera edo bestera helarazten dugula sentitzen ari garena.

Laminen kasuan, Arana-k (2008) eta Bergara-k (2001) Barandiaran-ek (1972) dioen bezala, laminek baserritarrak babesteaz gain laguntza ere eskaintzen die eta azken batean, elkarlaguntza bidez bizi dira. Horrekin batera, Arriaga-k (2001) aipatzen du lamiek sarritan ongizaleei esker onarekin eskertzen dietela.

Basajauni dagokionez, honako aditu hauek (Barandiaran, (1972); Satrustegi, (1980); Arana, (2008); Arriaga, (2000) eta Bergara, (2001)) ikuspegi berbera dute basajaunen baloreekin, hau da, denek uste dute artaldeari babesa eskaintzen diela eta aldi berean artzainak lasaitasunean bizi direla. Hori horrela izanda, artzainen eta basajaunen elkar laguntza, balore bezala transmititzen dela denek ikusten dute. Horrekin batera, Arana-k (2008) aipatzen du, sarritan basajaunak hain onak direnez, gaindituak edo engainatuak ere izaten direla. Beste pertsonai batzuek bezala, horrek ere, natura babesteko balioak transmititzen dituela dio Satrustegi-k (1980).

Bestetik, Satrustegi-k (1980) dio, Tartalok transmititzen duen balore garrantzitsua zera dela, elkarrekin dena gainditu daitekeela. Nahiz eta elkarrekin lan egin, beti modu batera pentsatzen duela dio adituak; hau da, Tartalok munduaren ikuskera bakarra duela eta hori ez duela inoiz aldatzen. Aurretik esan den legez, Tartalo laguntza eskaintzearen alde dago, baina Barandiaran-ek (1972) eta Arriaga-k (2000) ikusten dute, hain onak direnez, sarri gizakiak engainatu egiten duela.

Azkenik, Barandiaran-ek (1972) eta Arriaga-k (2001) antzeman dute, galtzagorriek gizakiei laguntza eskaintzen diela, baina, aldi berean, Arriaga-k (2001) aipatzen du, galtzagorriak ez direla hain onak, gizakiak zirikatu egiten baitituzte.

1.5. IKERKETA GALDEREN PLANTEAMENDUA

Aditu desberdinek zer dioten ikusi eta aztertu ondoren, zenbait kezka edo jakin-min sortu zaizkigu eta hauek dira formulatu ditugun ikerketa-galderak:

- Ba al dute Haur Hezkuntzako umeei Euskal Mitologiako pertsonaien kokalekuen buruzko ezagutzarik?
- Euskal Mitologiako ezaugarriak ikastea horiei buruzko irakaskuntza bultzatu ahalko litzaieke umeei?
- Garatu al daitezke Giza baloreak Euskal Mitologiaren bidez?

2. HELBURUAK

Aurretik esan bezala, marko teorikoa burutu bitartean zenbait zalantza sortu zaizkigu. Kezka horiek argitu nahian, gure esku-hartzeko helburu bihurtu dira. Horrela, esku hartzean zehar horiek erantzuten saiatu da. Guzti hori jakinda, proposamenean zehar presente izan diren helburuak hurrengo hauek izango dira:

- Euskal Mitologiako ipuinetako kokalekuetan oinarrituz, natura eta gure inguruetako txokoak ikastea edo hauen berri izatea.
- Euskal mitologiako zenbait pertsonaien (Mari, Sugaar, Akerbeltz, Atarrabi eta Mikelats, Lamiak/maideak, Basajaun, Tartalo eta Galtzagorriak) ezaugarriak ikastea, beti ere, euskal kulturaren ikasketa bultzatuz.
- Pertsonai mitologikoez baliatuta oinarritzko giza baloreak ezagutu eta lantzea, umearen garapen intelektualari egokituz.

3. METODOLOGIA

3.1. HASIERAKO EDO DIAGNOSTIKO FASEA

3.1.1. TESTUINGURUA ETA LAGINA

Esku hartze hau Muxikan gauzatuko da, Urretxindorra eskolako 3-4 urteko gelan, hain zuzen ere.

Muxikako herria, Busturialdea eskualdean kokatuta dago, Gernika herritik 4 kilometrora gutxi gorabehera eta 1.433 biztanle ditu (Eustat, 2016). Urretxindorra da bertako eskola, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza eskaintza dituen; hau da, 3 urtetik eta 12 urtera bitartean. Haur hezkuntzako ziklo bakarra dute, bigarrena kasu honetan, 3 urtetik eta 5 urte arteko linea bakarraz osaturikoa. Lehen hezkuntzan berriz, hiru ziklo dituzte, bakoitza linea batekoa: lehenengo zikloa (6-8urte), bigarren zikloa (8-10) eta hirugarren eta azken zikloa (10-12). Bestalde, esan beharra dago eskaintzen duten hezkuntza

eredua D eredua dela, hau da, guztia euskaraz irakasten dela hizkuntzako ikasgaiak izan ezik (gaztelania eta ingelesa). Halaber, CLIL metodologia ere jarraitzen dute; ikasgaiak ingelesez ematearena alegia; gizarte zientziak irakasgaia ingelesez ematen delarik.

Ikerketako parte hartzaileak, 3-4 urteko gelakoak izango dira, 18 ume: 6 neska eta 12 mutil. Gelako ikasle gehienak Muxikako eta inguruko herrietakoak direnez, ama hizkuntza euskara dute. Horiekin esku hartzea egiteko, laguntzaile edo inplementazioan lagunduko duen gelako tutorea izango da.

3.1.2. EGOERA

Lehenik eta behin, jakin-mina egon da eskoletan Euskal Mitologiaren inguruko gaia lantzen duten edo ez jakiteko eta landuz gero, zen puntutara arte.

Egoera horren diagnostikoa egiteko lehen mailako bi iturri desberdinetan oinarritu gara: batetik, ikastetxeko hezkuntza proiektuan eta bestetik, eskolako irakasleei egindako elkarrizketak (galderak 1. eranskinetan daude).

Bi iturri horiek kontutan izanik, eskolan Euskal Mitologiaren inguruko hutsune nabarmena sumatu dugu. Ikastetxeko hezkuntza proiektua aztertu ondoren, Euskal Mitologia bereziki jorratzen ez dela antzeman arren, elkarrizketak egin ditugunean, irakasle batzuek (Haur hezkuntzako hezitzaile bik (4 eta 5 urteko gelan) eta Lehen hezkuntzako beste bik (3. eta 6. Mailakoak)) kontatu digute lehen hezkuntzako mailetan zeharka bada ere, Euskal Mitologia lantzen saiatzen direla. Hau da, gutxienez umeek bertoko tradizioen eta ohituren berri badutela.

3.2. DISEINU EDO PLANIFIKAZIO FASEA

Behin hasierako edo diagnostiko fasea eginda, aipatu bezala Euskal Mitologiaren inguruan gabezia handia izanik, horren inguruko esku hartzea egitea erabaki dugu. Berau aurrera eramateko erabilitako diseinu eta sekuentzializazioa zehatzago aztertuko dira ondorengo lerroetan.

Esku hartze hau gradu amaierako lanerako gauzatutakoa da. Berton, arduradurak ekintza guztiak aurrera aterako dituen arren, inplementazioan zehar ikasgelako tutoreak lagundu du.

3.2.1. ESKU HARTZEA: IDEIA OROKORRA

Esku hartze hau astebetez egin da eta asteko egun bakoitzean saio bat burutuz, 30 eta 45 minutu artekoa izan dena. Astean zeharreko arlo desberdinak lantzeko: ipuinak, muralak eta ekintza edo jarduera desberdinak erabili dira. Horrela, umeek ikasketa esanguratsua egiteko aukera izan dutelarik.

3.2.2. SEKUENTZIALIZAZIOA

Behin esku hartzearen nondik norakoak jakinda, aste guztian zehar zein ekintza edo jarduera burutuko diren jakiteaz batera, helburuak zeintzuk izan diren edo zein ebaluazio irizpide erabili ditugun azalduko da.

2. TAULA

Asteleheneko esku-hartzea

ASTELEHENA	
HELBURU ZEHATZAK	
-Euskal Mitologiako zenbait pertsonaia (Mari, Basajaun, Lamiak eta Tartalo) identifikatzea eta ezagutzea.	
-Euskal Mitologiako pertsonaien bizitza ezagutzea.	
-Euskal Mitologiako pertsonaia bakoitzaren ezaugarriak barneratzea.	
ORDUAK	JARDUERA
10:15-10:20	Asteko plangintza azaldu zaie; hots, bost egunetan zehar zein gai landuko den aurkeztuz eta beraiekin batera egongo diren pertsonaiak deskribatuz.
10:20-10:40	“Argitxo eta mitologia” ipuina irakurri zaie eta gero, ipuinean zehar zein pertsonaia ageri diren aipatu da.
10:40-10:55	Ipuinean ageri diren pertsonaia guztiak muralean jartzen joan dira. Horrela, umeak pertsonaiak, beraien bizitza eta ohiturak ikasiko dituztelarik.
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
-Ea pertsonai bakoitza identifikatu eta ezagutu duten.	
-Pertsonaien desberdintasunak identifikatu dituztenetz.	
-Ea pertsonaia bakoitzaren ezaugarri garrantzitsuenak barneratu dituzten.	

3. TAULA

Astearteko esku-hartzea

ASTEARTEA	
HELBURU ZEHATZAK	
-Euskal Mitologiako pertsonaiak (Mari, Laminak, Basajaun, Tartalo, Galtzagorriak, Sugaar, Atarrabi eta Mikelats eta Akerbeltz) ondo ezagutzea.	
-Euskal Mitologiako pertsonaien baloreak deskribatzea.	

-Guztien artean pertsonaien ezaugarriak identifikatzea eta esatea.	
ORDUAK	JARDUERA
10:15-10:25	Arinagoko egunean kontatutako “Argitxo eta mitologia” izeneko ipuina berriro kontatu zaie.
10:25-10:40	Ipuina bigarren aldiz irakurri eta gero, ipuineko Euskal Mitologiako pertsonaiak nolakoak izan diren deskribatu dituzte.
10:40-10:50/55	Ipuineko pertsonaien argazkiak arbelean jarri eta horien ezaugarrien eta transmititzen dituzten baloreen zerrenda guztien artean osatzea.
EBALUAZIO IRIZPIDEAK -Ea Euskal Mitologiako pertsonaiak (Mari, Laminak, Basajaun, Tartalo, Galtzagorriak, Sugaar, Atarrabi eta Mikelats eta Akerbeltz) ondo ezagutzen dituzten. -Ipuineko pertsonaien baloreak deskribatu dituztenetz. -Ea guztien artean pertsonaiak identifikatzeko eta esateko gai izan diren.	

4.TAULA

Asteazkeneko esku-hartzea

ASTEAZKENA	
HELBURU ZEHATZAK -Euskal Mitologiako pertsonaiek transmititzen dituzten baloreetatik hiru balore garrantzitsu hauek umeei aurkeztea: naturarekiko errespetua, Euskal Mitologian nola ulertzen den “ona eta txarra” kontzeptua eta elkartasuna. -Modu ludiko batean naturarekin kontaktua izatea. -Talde lanean natura errespetatzen ikastea.	
ORDUAK	JARDUERA
10:15-10:35	Umeei bakarrik aurreko egun bietan irakurritako ipuina birgogoratu dute, “Argitxo eta mitologia” izenekoak. Errepikatzen den balorea zein den hauteman dute eta guztien artean balore garrantzitsuena erabaki dute.
10:35-10:40	Hurrengo hiru egunetan zehar jorratuko diren hiru gaiak zeintzuk diren aipatu dira: 1) Naturarekiko errespetua, 2) Euskal Mitologian nola ulertzen den “ona eta txarra” kontzeptua 3) Elkartasuna edo elkarlaguntza.
10:40-10:50:55	Naturarekiko errespetua balorea lantzeko, “basoaren zaindariak” ipuina erabili da. Gero, gaiari buruz gehiago ezagutzeko asmotan, umeei galdera desberdinak egin zaizkie, horri buruz uste dutena adieraz dezaten.
10:50-11:05	Ipuina irakurri ondoren, naturarekiko errespetua balorea landu dute altxorraren bila jolasarekin; hau da, pista desberdinak eman zaizkie naturarekiko errespetua zer den definitzen dutenak eta horiekin jolasa burutu behar izan dute.
EBALUAZIO IRIZPIDEAK -Ea aurkeztutako hiru baloreak identifikatzeko eta ulertzeko gai izan diren. -Ea naturarekiko errespetua zer den barneratu duten edo ez.	

-Modu ludiko batean naturarekiko kontaktua izatea lortu dutenetz.

5. TAULA

Osteguneko Esku-hartzea

OSTEGUNA	
HELBURU ZEHATZAK	
-Euskal Mitologian nola ulertzen den “ona eta txarra” kontzeptua barneratzen joatea.	
-Baloreen garrantzia antzematea edo ikustea.	
-Baloreen gaineko bakoitzaren iritzia entzutea.	
ORDUAK	JARDUERA
10:15-10:20	Guztien artean, aurreko egunean landutako balorea birgogoratu eta gaur zer balore landuko dugun gogora ekarri da (Euskal Mitologian nola ulertzen den “ona eta txarra” kontzeptua)
10:20-10:35	Euskal Mitologian nola ulertzen den “ona eta txarra” ulertzeko, “Txorimaloa” izeneko ipuina kontatu zaie umeei.
10:35-10:45	Behin, ipuina irakurrita, gaiaren inguruko galdera batzuk egin zaizkie, gaiari buruz beraiek zer uste duten jakiteko.
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
-Ea Euskal Mitologian “ona eta txarra” kontzeptua barneratu duten.	
-Ea baloreak transmititzen duen garrantziaz jabetu diren.	
-Bakoitzarentzako baloreak zer suposatzen duen adierazi dutenetz.	

6. TAULA

Ostiraleko Esku-hartzea

OSTIRALA	
HELBURU ZEHATZAK	
-Laguntza eta lankidetzako jarrerak eta ohiturak lantzea.	
-Elkartasun balorea identifikatzea eta barneratzea.	
-Umeentzako elkartasunak zer suposatzen duen adieraztea.	
-Elkartasunaren balorea errealitatean txertatzea eta beraien gorputzetan sentiaraztea.	
ORDUAK	JARDUERA
10:15-10:20	Elkartasunaren baloreak zer nolako garrantzia duen azaldu zaie umeei.
10:20-10:30	Behin elkartasuna zer den azalduta, “ azenario erraldoia” izeneko ipuina kontatu zaie, horrekin elkartasunaren kontzeptua hobeto azaldu nahian.
10:30-10:40	Ipuina irakurrita, bakoitzarentzako elkartasunak zer suposatzen komentatu dute, nolana ere, bakoitzak bere iritzia emanez.
10:35-10:40	Hori guztia barneratu eta haien burua horrelako egoera baten jartzeko asmotan, hiru ekintza desberdin burutu dira.

	1)Pilota gelako punta batetik bestera eramatea guztien artean, ume guztiak lekutik mugitu gabe.
10:40-10:45	2)Ehunzangoa guztien batera sortu behar izan dute eta denak koordinatuz, gelatik zehar ibili dira.
10:45-10:55	3)Elkartasun aulkia ekintzara jolastu dute. Ezin denez inor kanporatua izan guztien artean elkartasunaren esentzia / garrantzia ikusi dute.
EBALUAZIO IRIZPIDEAK -Ea laguntza, lankidetzarako edo kooperazio ohiturak landu eta bereganatu dituzten. -Elkartasunak zer adierazten duen barneratu dutenetz. -Ea beraietzako elkartasunak zer suposatzen duen adierazi duten. -Ea elkartasunaren balorea beraien errealitatean txertatzea lortu eta beraien gorputzetan sentiarazi duten.	

Taula honen xehetasun gehiago, 3. Eranskinean ikusgai daude.

3.2.3. METODOLOGIAREN EBALUAZIO TRESNAK

Astean zehar egingo diren ekintzak burutzeko erabilitako helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak jada definiturik daudela, horiek nola ebaluatzeko tresna desberdinak erabiliko dira.

Gaian sakonago sartu aurretik, hasierako ebaluazioa egin zaie ikasleei, beraien aurre-jakintzak edo aurre-ezagutzak ezagutu nahian. Horretarako, behaketa txantiloian landa-oharrak hartu dira (2. eranskinean ikusgai daude). Horrela umeen ezagutzaren berri izateaz gain, gaia lantzen nondik hasi beharko litzatekeen jakiten lagundu digu. Guzti horretaz gain, esku hartze guztian zehar, hau da, ekintzak edo jarduerak burutu bitartean umei ebaluazio jarraitua egin zaie, horretarako erabilitako tresnak behaketa eta elkarrizketa izan direlarik. Tresna bi horiekin aztertu dena zera izan da, ea prozesua nola doan eta zerbait gaizki edo beste era batera egin baliteke, aldatzeko aukera izatea. Bukatzeko, amaierarako ebaluaziorako erabili diren tresnak, murala eta amaierako ebakuazio txantiloia landa-oharrak izan dira. Horrez gain, amaierako ebaluaketaren berri balorazio fasean emango da.

3.3. ESKU-HARTZE FASEA

Esku hartzearen helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak eta horiek ebaluatzeko tresnak definitu ondoren, esku-hartzearen inplementazioari buruzko xehetasunak emango dira atal honetan.

Lehenengo eta behin, abenduaren lehenengo astean, Muxikako Urretxindorra eskolara gerturatu ginen, ea beraiek Euskal Mitologiaren inguruko gaia noizbait ematen dutenez jakiteko. Berton, Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntzako bina irakaslerekin elkarrizketa izan eta gero, Lehen Hezkuntzakoek euskara irakasgaiari zerbait emanda zutela aipatu zuten, baina Haur Hezkuntzakoek aldiz, ezer ere ez.

Behin informazio hori eskuratuta eta Euskal Mitologiari buruz ez zutela ezer lantzen ikusita, abenduko bigarren astean, tutorea izango zenari proposamena luzatu zitzaion. Tutoreak horren berri zuela, astebete geroago proposamena onartu zuen, inolako arazorik gabe esku hartzea aurrera eraman zitekeela esanez.

Informazio guzti hori batuta, esku hartzearen planifikazioaren prestaketari ekin zaio, urtarrilaren lehenengo astetik eta otsailaren hirugarren astera arte iraun zuena. Hori behin eginda, diseinua burutu da. Guzti hori prest zegoela, martxoko azkenengo astean esku hartzea burutu zen. Azkenik, esku-hartzearen balorazioa eginda, GRAL-eko txostena idatzi zen.

Aurretik komentatutako esku-hartzearen prozesu osoa ikusgai daukagun Gantt-en diagraman islatu dugu:

7. TAULA

Esku-hartzeko prozesua azaltzen duen diagrama

EKINTZAK	ABENDUA	URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA	MAIATZA
Esku hartzearen proposamena						
Esku hartzearen onarpena						
Esku hartzearen planifikazio fasea						
Esku hartzearen diseinu fasea						
Esku hartzearen burutze fasea						
Balorazioa eta Gral txostena						

3.4. EBALUAZIO EDO BALORAZIO FASEA

Esku hartzearen balorazioa egiteko, informazioa ikerketa galderen arabera antolatuko dugu:

1. Ikerketa galdera: “Ba al dute Haur Hezkuntzako umeek Euskal Mitologiako pertsonaien kokalekuen buruzko ezagutzarik?”.

Gure jakin-mina zen ea Haur Hezkuntzako umeek Euskal Mitologiako kokalekuei buruz zerbait zekiten. Hasierako ebaluazioan behaketarako txantiloian landa-oharrak hartzean (2. Eranskinean ikusgai dago), konturatu gara, Basajaun non bizi den besterik ez dakitela, beste pertsonai guztiak bizitokirik izango ez balute bezala. Baina, amaieran, murala amaierako ebaluaketa moduan erabiltzean, ia denak pertsonaien kokalekuez edo bizitokiaz gogoratzen zirela aipa daiteke. Beraz, hori ikusita, esan daiteke, umeek hasiera batean ez zekitela ezer, baina azkenean, helburua bete dela antzeman daiteke, ia guztiek bizilekuak modu erraz eta arin batean identifikatzen eta esaten izan baitituzte.

2. eta 3. Ikerketa galdera: “Euskal Mitologiako ezaugarriak ikastean horiei buruzko irakaskuntza bultzatu ahalko litzaieke umeei? eta “Garatu al daitezke Giza baloreak Euskal Mitologiaren bidez?”.

Bigarren eta hirugarren helburu bezala planteatu izan dira, Euskal Mitologiako pertsonaien ezaugarriak eta horiek transmititzen edo sinbolizatzen dituzten baloreak umeei helaraztea. Behin esku-hartzea burutu eta gero, aztertu da lau urteko umeek euskal mitologiari buruzko ezagutzak, beraiei buruzko ezaugarriak eta proposamenean zehar sustaturiko baloreak modu ludiko baten bidez barneratu dituzte, baina hiru urtekoek sarritan, ez dutela ezer bereganatu antzeman da. Guzti hori, egin zaien amaierako ebaluaketa txantiloian landa-oharrak hartzean ikusi da (4. Eranskinean ikusgai dago).

4. ONDORIOAK ETA AURRERA BEGIRAKOAK

4.1. ONDORIOAK

Behin esku hartzea aurrera eramanda dagoela, hortik guk hurrengo ondorio hauek atera ditugu:

1. Ikerketa-galdera: “Ba al dute Haur Hezkuntzako umeek Euskal Mitologiako pertsonaien kokalekuen buruzko ezagutzarik?”

Marko teorikoa ikertu dugu, Euskal Mitologiako pertsonai bakoitzak bizitoki edo bizileku bat duela. Gure esku hartzean, hori umeei muralaren bidez eta ipuin desberdinen bidez transmititzen saiatu da, baina ez dira nahi bezalako emaitzak lortu. 4

urteko umeek Euskal Mitologiako pertsonaien bizitokiko ezagutzak barneratu dituztela antzeman da, baina hiru urteko zenbat umek ez dituztela ulertu ere egin ikusi dugu. Azken batean, esan daiteke, 3 urteko umeen barneratzeko gaitasuna txikiagoa denez, dena gogoan izatea zaila egin zaiela, adinaren arabera gaitasun hori eskuratzen baitute.

2. Ikerketa-galdera: “Euskal Mitologiako pertsonaien ezaugarriak ikasteen horiei buruzko irakaskuntza bultzatu ahalko litzaieke umeei?”

Marko teorikoan antzeman dugu, Euskal Mitologiako pertsonai bakoitzaren ezaugarriak bereizgarriak direla besteekiko. Esku-hartzeko helburua, umeei ipuinen eta muralaren bidez horiek helaraztea izan da, azken finean, umeek modu horretan askoz ere hobeto barneratzen baitituzte. Behin, prozesua burututa, ikusi da, 4 urteko umeak ia pertsonaia bakoitzaren ezaugarriak inolako arazorik gabe identifikatzeko gai izan direla eta 3 urteko umeak berriz, zenbait identifikatzeko gai izan dira. Antzeman dugu, beste ekintzaren bat proposatu beharko litzaiekeela 3 urteko umeei, ezaugarri horiek beraiek ere bereganatu ditzaten.

3. Ikerketa-galdera: “Garatu al daitezke Giza baloreak Euskal Mitologiaren bidez?”

Marko teorikoan ikusi dugu, pertsonaia bakoitzak batzuetan balore desberdinak sinbolizatzen dituztela, baina beste askotan aldiz, guztiek komunean berdinak dituela. Gure esku hartzean horiek helarazteko ahalegina egin da, baina denak ez dira modu berean barneratu. Zenbait balore adibidez, lagun artean gauzak egitearena edo natura errespetatzearena, ikusi dugu erraz ulertu eta bereganatu dituztela. Beste batzuk, aldiz, kostatu egin zaizkie ulertzea. Iruditzen zaigu gertatu den hau, batzuk balore konplexuak ulertzeko txikiegiak direlako izan litekeela.

4.2. PROZESUAN ZEHAR IZANDAKO ZAILTASUNAK

Nahiz eta taldea ezagutu eta beraiekin bi hilabete baino gehiago eraman arren, talde berean umeak egonik, garapen kognitibo desberdina duten umeak daudenez, zaila izan da ebaluazio-irizpideak zehaztea; hau da, denentzat egokituak. Horren harira, zer jarduera landu ere kostatu izan da, ekintzak ere beraien garapenera egokitu beharra zeudelako. Hasiera batean, jarduera batzuk pentsatuta zeuden, baina umeen gaitasunak ikusita, prozesuan zehar jarduerak moldatu dira.

Beste zailtasun bat zera izan da, zenbat sakondu Euskal Mitologiaren inguruan, ez baikenekien zein punturaino ulertuko zuten. Lehenengo egunean, azalpena ematen hasi

eta zerbait ulertzen ez zutela ikustean, azalpena emateko teknika aldatu egiten zen, guztiek ulertzeko moduko argibideak emanez. Hori lortu denean, denek inolako zailtasunik gabe azalpenak ulertu dituzte.

Azkenik, lehenengo egunetan urduritasunak jarduerak behar bezala ez ateratzea eragin zuen, nolabait. Kontrolatua izan den momentuan, azalpenak askoz ere garbiagoak eta argiagoak izan ziren.

4.3. AURRERA BEGIRAKOAK

Behin, zein ondorio atera diren eta prozesuan zer zailtasun egon diren ikusita aurrera begira zer hobekuntza beharko litzatekeen adieraziko da.

Lehenengo eta behin, lasaiago egotea, azalpenak hobeto eman ahal izateko eta umeei gauzak errazago ulertarazteko.

Horrez gain, esku-hartzea astebetekoa izan dela, baina denbora gehiagoz luzatzea komeniko litzatekeela, gaia askoz ere gehiago sakontzeko eta prozesuan zehar era desberdinetako jarduerak lantzeko, adibidez, antzerkia.

Gainera, esku-hartzeko zenbait ekintza aldatu egingo liratekeela, bereziki hiru urteko umeen garapenera egokitzeko asmoz. Amaitzeko, norberak helburu batzuk pentsatuta izan arren, umeei egokitu beharra dago eta beraien beharrazaneiei erantzun.

5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Arana, A. (2000). *Mito hurbilak: euskal mitologia jendeen bizitzan*. Baiona: GATUZAIN.
- Arana, A. (2008). *Euskal mitologiak: jentilak eta kristauak*. Donostia: ELKAR.
- Arriaga, J.L. (2000). *Euskal mitologia*. Bilbo: MENSAJERO.
- Azkue, R.M. (1989). *Euskal herriaren yakintza liburukia*. Madril: ESPASA-CALPE.
- Barandiaran, J.M. (1972). *Obras completas* (I. tomoa). Bilbo: LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA.
- Bergara, A. (2001). *Mitologika: Euskal Herriko izaki magiak gaur egungo ikuspuntutik*. Bilbo: ASTIBERRI.
- Bermejo, D. (2011). *La identidad en sociedades plurales*. Bartzelona: Anthropos.
- Campbell, J. (2013). *El heroe de las mil caras. Psicoanálisis del mito*. Mexiko: FONDO DE CULTURA ECONÓMICA.
- Caro Baroja, J. (1985). *Mitos vascos y mitos sobre los vascos*. Donostia: TXERTOA.
- Chillida, E. (2005). *Escritos*. Madril: LA FABRICA.
- Dumezil, G. (1990). *El destino del guerrero: aspectos míticos de la función guerrera entre los indoeuropeos*. Mexiko: SIGLO XXI EDITORES
- Eustat (2016). Bizkaiko biztanleria barruti eta zentsu-sekzioen arabera, adin taldeen eta nazioartean arabera. 2017ko apirilaren 2an berreskuratua: http://eu.eustat.eus/elementos/ele0011400/ti_Bizkaiko_biztanleria_barruti_eta_zentsu-sekzioen_arabera_sexuaren_adin-taldeen_eta_naziotasunaren_arabera/tbl0011435_e.html#axzz4iB1PR1wj
- Garagalza, L. (2006). La mitología vasca en la actualidad. *Kobie*, 12.zk, 135-148. 2016ko azaroaren 8 an berreskuratua: http://www.bizkaia.eus/fitxategiak/04/ondarea/Kobie/PDF/5/Kobie_12AC_LA%20MITOLOG%C3%8DA%20VASCA%20EN%20LA%20ACTUALIDAD,%20The%20Basque%20My.pdf
- Haranburu, L. (2010). *El dios de los vascos*. Donostia: HIRIA
- Hartsuaga, J.I. (2004). *Euskal mitologia konparatua; jentilen akabera*. Donostia: GAIK.
- Hartsuaga, J.I. (2013). Zer ekarpen egin dioke euskal curriculumari mitologiaren alorretik?. *Hik hasi*, 178.alea. 2017 ko urtarrilaren 29 an berreskuratua: <http://www.hikhasi.eus/artikulua/2132>
- Hornilla, T. (1991). *Los heroes de la mitología vasca*. Bilbo: MENSAJERO.
- Lanceros, P. (2001). *El destino de los dioses*. Madril: TROTTA.
- Neumann, E. (2009). *La gran madre. Una fenomenología de las creaciones femeninas de lo inconsciente*. Madril: TROTTA.
- Mentxakatorre, J. (2016). Euskal mitologiak eta identitateaz Mariren eduki sinboloaz. 2017 ko urtarrilaren 29 an berreskuratua:

<http://www.jakin.eus/gogoeta/artikuluak/euskal-mitologiaz-eta-identitateaz-mariren-eduki-sinbolikoaz/154>

Ortiz-Oses, A.(2006). *Euskal mitologia: izena duen guztia omen da*. Donostia: KUTXA.

Satrustegi, J.M. (1980). *Mitos y creencias*. Hernani: EGIN.

Satrustegi, J.M. (1992). La impronta de la mitología vasca. *Cuadernos de etnología y etnografía de navarra*, 60.zk, 163-172. 2016ko azaroaren 8 an berreskuratua: <http://www.vianayborgia.es/bibliotecaPDFs/CUET-0060-0000-0163-0172.pdf>

Satrustegi, J.M. (1996). Haitzuloetako euskal mitologia. *Cuadernos de etnología y etnografía de navarra*, 68.zk, 165-174. 2016ko urriaren 16 an berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=144887>

Satrustegi, J.M. (1999). Lamias y sirenas a través de la mitología. *Cuadernos de etnología y etnografía de navarra*, 74, 497-519. 2016ko irailaren 10 ean berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/308255.pdf>

Sirueta, J. (2010). *El mundo bajo los parpados*. Vilaur: ATALANTA.

Zulaika, J. (1996). *Del cromañon al carnaval. Los vascos como museo antropológico*. Donostia: EREIN.